

KANTAURIKO URKIDETZA PARTZUERGOA ESTATUTOAK

Kantauriko Urkidetza ur partzuergoaren asanblada orokorreko 2004ko abenduaren 20ko Akordioan sartutako aldaketak barneratzen dira. Akordio horretan estatutuen aldaketa onartzen da, Eusko Jaurlaritzak bertan duen partaidetzari buruzko iritzia aintzat hartuz.

ACR21_04.

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. IZAERA ETA HELBURUAK	4
1. artikulua. Patzuergoaren eraketa	4
2. artikulua. Izena eta egoitza soziala	4
3. artikulua. Nortasuna eta ahalmen juridikoa	4
4. artikulua. Partzuergoaren lur-eremua eta iraupena	5
5. artikulua. Erregimen juridikoa	5
6. artikulua. Partzuergoaren helburuak	5
7. artikulua. Ahalmenak	5
8. artikulua. Kudeatzeko modua	6
9. artikulua. Zerbitzuak emateko elkarlana	6
10. artikulua. Hirigintzako elkarlana	6
11. artikulua. Udalaren ordenantzen egokitzapena	6
II. KAPITULUA. GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK	7
12. artikulua. Gobernu organoak	7
13. artikulua. Batzarra	7
14. artikulua. Partzuergoaren baitako Erakundeetako ordezkarien hautaketa eta karguaren iraupena	8
15. artikulua. Batzarraren saioak	8
16. artikulua. Deialdia eta gai-zerrenda	8
17. artikulua. Kide anitzeko organoaren funtzionamendua	9
18. artikulua. Batzar Nagusiaren eskuduntzak	9
19. artikulua. Gobernu-Batzordea	10
20. artikulua. Gobernu-batzordearen bilkurak	10
21. artikulua. Deialdia eta gai-zerrenda	11
22. artikulua. Gobernu-batzordearen funtzionamendua	11
23. artikulua. Gobernu-batzordearen eskuduntzak	11
24. artikulua. Lehendakaria eta lehendakariordea	12
25. artikulua. Lehendakariaren eskuduntzak	12
26. artikulua. Lehendakariordearen eskuduntzak	13
27. artikulua. Zuzendari kudeatzailea	13

III. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA	13
28. artikulua. Partzuergoaren ondasunak.....	13
29. artikulua. Tarifak.....	14
30. artikulua. Tarifak ezartzeko irizpideak.....	14
31. artikulua. Tarifak ezartzea.....	14
32. artikulua. Administrazio-kudeaketarako unitatea.....	14
33. artikulua. Onurak.....	15
IV. KAPITULUA. ONDAREA	15
34. artikulua. Partzuergoaren ondarea.....	15
V. KAPITULUA. LANGILEAK	15
35. artikulua. Langileak.....	15
36. artikulua. Partzuergoari transferitu dakizkiokeen Partzuergoaren baitako Erakundeetako langileei buruz.....	16
37. artikulua. Idazkaria.....	16
38. artikulua. Kontuhartzailea.....	16
VI. KAPITULUA. KIDEAK ONARTZEA ETA EGOZTEA	17
39. artikulua. Kide berriak sartzea.....	17
40. artikulua. Kideak egozteak.....	17
XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA	17
VII KAPITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA ETA PARTZUERGOA DEUSEZTEA	18
41. artikulua. Estatutuak aldatzea.....	18
42. artikulua. Deuseztapena.....	18
43. artikulua. Likidazioa.....	19

KANTAUURIKO URKIDETZA PARTZUERGOA ESTATUTOAK

I. KAPITULUA IZAERA ETA HELBURUAK

1. artikulua. Patzuergoaren eraketa.

1. Amurrio, Artziniega, Araia, Laudio eta Okondo, Aiarako Koadrila eta Arabako Foru Aldundiak, indarrean dagoen legeriak ematen dien aginpidez baliatuta, partzuergoa osatzen dute, euren aginpideko azpiegiturak eta zerbitzuak batera ezarri eta ustiatzeko, estatutu hauen seigarren artikuluan adierazitako helburuak betez.
2. Aiarako Koadrilako Kontzejuek Partzuergoan sartzeko eskatu ahal izango dute, 13, 19 eta 39. artikuluetan jasotakoaren arabera.
3. Estatutu hauetan ezarritakoari jarraiki onartuko dira kide berriak edo/eta daudenak egotziko.

2. artikulua. Izena eta egoitza soziala.

1. "Kantauriko Urkidetza" izena izango du partzuergoak.
2. Izoria herrian kokatutako Maroño presako araztegiaren instalazioetan egoitza soziala egongo da.

3. artikulua. Nortasuna eta ahalmen juridikoa.

Partzuergoa Zuzenbide Publikoko erakundea da, elkargintzako eta borondatezko izaera du, zuzenbide publikoko edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek osatuta, Administrazio Publikoarenekin bat datozen interes publikoko helburuak dituztenak.

Partzuergoak berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa du bere helburuak betetzeko, Hori dela eta, zernahi ondasun erosi, izan, eskatu, trukatu, zergapetu eta saldu ahal izango ditu, bai eta kontratuak izenpetu, estatutu hauetan ezarritako zerbitzu publikoa eta bere aginpidekotzat jotzen dituenak ezarri eta ustiatu ere. Orobat, ardura hartu, errekursoak aurkeztu, legeetan ezarritako egintzak burutu eta langileak kontratatu ahal izango ditu, bai eta indarrean dagoen legeriak ematen dizkion gainerako aginpide guztiak ere.

Partzuergoaren baitako erakundeek Partzuergoaren bidez egikaritzen dute euren eskumena, eskumena edonola ere jatorrizko Erakundearen esku mantenduta.

Partzuergoak berau osatzen duten Tokiko erakundeak ordeztuko ditu bere helburuak lortzeko eta horretarako behar izango dituen ondasunen eta eskubideen titularra izango da.

4. artikulua. Partzuergoaren lur-eremua eta iraupena.

1. Partzuergoaren lur-eremua kasuan-kasuan bere partaide diren udalek eta Administrazio Batzarrek osatzen dute.
2. Partzuergoak ez du denbora-mugarik eta bere helburuek dirauten bitartean ez da desagertuko, salbu eta helburu horiei dituen jarduerak eta bitartekoak aplikatzeak iraun ezina eragiten badu edo partzuergoa deuseztea eragiten duen beste gorabehera salbuespenezkorik tartean ez bada.

5. artikulua. Erregimen juridikoa.

1. Partzuergoaren antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa estatutu hauetan ezarritakoa arautuko dira. Osagarri gisa bada ere, ondoko hauek ere hartuko dira kontuan: Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, berau garatzen duten autonomiaerkidegoen xedapenak, toki-erakundeei aplikatu beharreko gainerako legezko eta arauzko xedapenak, Uraren Legea eta gai hau arautzen duten beste xedapen sektorial batzuk.
2. Batzar Nagusiaren eta Gobernu-Batzordearen akordioek agortuko dute bide administratiboa.
3. Partzuergoaren organoen erabakiak eta ebazpenak berehala betearazi beharko dira, goragoko onespena edo baimena behar ez bada.

6. artikulua. Partzuergoaren helburuak.

1. Partzuergoak ur-horniduraren oinagitura eta lehen sareen saneamendua ezartzea eta ustiatzea du helburutzat, bai eta dagozkion zerbitzuak ematea ere, beti ere egokiro eta indarreango araudia betez.
2. Egoki iritziz gero, partzuergoak ur-zikloaren beste maila batzuetara zabaldu ahal izango ditu bere helburuak, horretan interesa duten erakundeekin bat etorritik eta horiekin aurretiaz hitzarmena sinatuz.

7. artikulua. Ahalmenak.

Bere helburuak betetzeko, partzuergoak ondoko ahalmenak izango ditu:

- a) Europako, Estatuko eta Foru Administrazioari eskatu eta haiengandik eskuratu indarreko legeriak eskaintzen dituen diru- laguntzak eta laguntza teknikoak edo administrazio horiekin hitzartutako beste laguntzaren batzuk.
- b) Hornidura eta saneamendurako behar diren lagapen eta baimenak eskatzea eta lortzea.

- c) Zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko behar diren inbertsioak finantzatzeko eragiketarako burutzea.
- d) Proiektuak prestatzea eta oinegiturak ezarri eta kontserbatzeko behar diren lanak betearaztea.
- e) Lehen sarearen hornidura eta saneamendurako zerbitzuak kudeatzea.
- f) Ur-horniduraren zerbitzuen eta lehen sarearen saneamenduaren tarifak ezartzea, eta Batzarrak egoki iritziz gero, Udal eta Administrazio-Batzar interesdunek aurretik eskatuta, partzuergoak kudeatuko du tarifa orokorraren kobrantza.
- g) Uraren banaketarako eta toki-sareen saneamendurako sorospen teknikoa ematea, Udalak eta Administrazio-Batzarrek aurretik eskatuta eta Partzuergoak onartzen badu.
- h) Aurreko artikulua 2. atalean ezarritakoaren ondorioz behar diren jarduerak guztiak burutzea.
- i) Helburutzat dituzten zerbitzuak arautzeko ordenantzak eta araudiak onartzea.

8. artikulua. Kudeatzeko modua.

Bere burua antolatzeko duen ahalmenaz baliatuta, Biasteri Errioxa Arabarra Koadrilak zerbitzu horiek eman ahal izango ditu, toki-jaurbideari buruzko legeriak zerbitzu publikoak emateari buruz ezarritako edozein kudeaketa-modu erabiliz.

9. artikulua. Zerbitzuak emateko elkarlana.

Partzuergoak sor litezkeen kudeaketa-erakundeek eta partzuergoko erakunde publikoek euren lehendakari, alkate eta ordezkari bidez elkarri lagunduko diote euren zerbitzuak hobeto eskaintzeko, behar diren argibideak eta babesak emanez.

10. artikulua. Hirigintzako elkarlana.

1. Partzuergoa eta partzuergoarekin elkartutako erakundeak elkarren arteko elkarnean aktiboki jarduteko konpromezua hartzen dute, guztiei eragiten dieten hirigintza-arloko gaietan. Ondorio horietarako, udalak partzuergoarekin harremanetan jarriko dira, euren antolamendu-bitartekoak egiteko edo aldatzeko, euren eragiten dieten gaietan.
2. Partzuergoko erakundeak, hirigintzako proiektuak onartu aurretik, eta beti eraikin berrietarako lizentziarik eman baino lehen, partzuergoari bere aginpideei buruzko txostena eskatu behar izango diote. Txosten hori ez da loteslea izango.

11. artikulua. Udalaren ordenantzen egokitzapena.

Partzuergoaren eskumenak diren gaiak arautzen dituzten Partzuergoaren baitako Udala eta Administrazio-Batzarren Ordenantza guztiak, partzuergoak onetsitako ordenantzei eta arau teknikoari egokitu beharko zaizkie, erakunde bakoitzak dituen bereizgarriei kalterik eragin gabe. Ondorio horietarako, udal horiek partzuergoak emandako ebazpenak erantsiko dizkiete euren ordenantzei.

II. KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA

12. artikulua. Gobernu organoak.

1. Partzuergoaren gobernua eta administrazioa ondoko organoen esku egongo dira:
 - Batzar Nagusia,
 - Gobernu Batzordea,
 - Lehendakaria eta
 - Lehendakariordea.
2. Zuzendari kudeatzailea ere zuzendaritzako organoa da. Zerbitzuak emateko elkarte autonomo bat eratuz gero, kargu hori horren barruan sartuko da.

13. artikulua. Batzarra.

1. Batzar Nagusia Partzuergoaren gorenko organoa da, estatutu hauetan jasotako aginpideak eta eskuduntzak ditu, bai eta antolamendu juridikoan jasotako beste edozein ere.
2. Partzuergoko erakundeetako ordezkariak osatzen dute Batzar Nagusia, eta erakunde horiek hurrengo botoak eta gehieneko ordezkari kopurua izango dituzte:
 - a) Udalerrri kideei honako ordezkari kopurua dagokie:
 - Amurrio, botoen %20 eta gehienez 3 ordezkari
 - Artziniega, botoen %20 eta gehienez 3 ordezkari.
 - Aiara, botoen %7,5 eta gehienez 2 ordezkari.
 - Laudio, botoen %45 eta gehienez 5 ordezkari.
 - Okondo, botoen %7,5 eta gehienez ordezkari 1
 - b) Arabako Foru Aldundiari, botoen %5 eta gehienez 3 ordezkari.
 - c) Aiarako Kontzejuei, botoen %5 eta gehienez 2 ordezkari
 - d) Amurrioko Kontzejuei, botoen %5 eta gehienez ordezkari 1.
 - e) Eusko Jaurlearitziari, gehienez ordezkari 1, hitzarekin baina botorik gabe.
3. Boto bat baino gehiagoko duen partzuergoko erakunde bakoitzak baino ezin dezake murriztu bere ordezkari kopurua, dituen ordezkari bakoitzak boto bat baino gehiago emanaz, baldin eta bere udaleko indar politikoak partzuergoan ordezkaturik badaude, udaletxe horretan duten ordezkari kopuruaren arabera lehentasunak emanaz.
4. Amurrio eta Aiarako Kontzejuei dagozkien ordezkarien sarrera Udalerrri horietariko bakoitzeko Administrazio-Batzarretariko batek Partzuergoan sartzeko eskaera formala egin eta onartzen den une berean egingo da, 39. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu honi jarraitzen dion puntuan ezarritakoari kalterik egin gabe, ezin izango da ordezkari bat baino gehiago egon Kontzeju bakoitzeko.

Amurrio eta Aiarako Kontzejuen sarrera behin betiko onartu arte, Batzar Nagusiko euren ordezkariak eta boto-partaidetza jatorri duten Udalerrria ordezkatzeko duten kideen esku egongo da

5. Badago botorik gabeko ordezkariak izendatzea, botoen ehuneko beste ordezkariaren batengan bilduta, betiere Udal edo Kontzeju horrek ez badu gainditzen ez ordezkari-kopurua, ez esleituriko botoen ehuneko osoa.

14. artikulua. Partzuergoaren baitako Erakundeetako ordezkarien hautaketa eta karguaren iraupena.

1. Partzuergoaren baitako Udaletako kide ordezkariak, Batzar Nagusian zein Gobernu-Batzordean, Alkate-Udalburuek edo hauek eskuordeturiko pertsonak izendatuko dituzte.

Partzuergoaren baitako gainerako Erakundeei dagokienez, eta aurreko artikuluan Kontzejuetako ordezkariaren inguruan ezarritakoari kalterik egin gabe, kideak dagozkien jatorrizko Erakundeetako Gobernu-Organoko eskudunek izendatuko dituzte.

Gainera, ordezkariaren ordezkoko bat izendatuko da titularren kargu-galtze, bertaratze eza eta gaixotasun kasuetarako

2. Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako kide ordezkariak Aldundiaren beraren araudiari jarraiki Aldundiak izendatzen dituenak izango dira. Gainera, Aldundiak ordezkoko bat izendatuko du, aurreko puntuan aipatutako kasuetarako.
3. Bokalen agintaldiak lau urte iraungo du eta, egoki bada, udalbatzarra berritzearekin batera bukatuko da. Kasu horietan, partzuergoan dituzten ordezkariak euren postuetan jarraituko dute harik eta partzuergoaren zuzendaritza organoak berreratzen diren arte.

15. artikulua. Batzarraren saioak.

1. Batzar Nagusiaren saioak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ohiz bestekoak eta ohiz besteko presazkoak.
2. Batzarra urtean behin gutxienez bilduko da lehendakariak deitutako ohiko saioan.
3. Orobat, Batzarrak nahi adina saio egin ahal izango ditu, ohiz besteko saioak, bai lehendakariak deituta bai Batzar Nagusiko legezko kideen laurden batek idatziz eskatuta.
4. Saioetan Zuzendari Kudeatzailea izango da, ahotsa bai baina botorik ez duena.

16. artikulua. Deialdia eta gai-zerrenda.

1. Batzarraren saio bakoitzaren deialdia garaiz egin beharko da. Deialdia zabaltzen denetik saioa egiten den arte gutxienez bi astegun igaroko dira, ohiz besteko presazko saioak ez badira, ordezkari bakoitzak jorratzeko diren gaiak taxuz aztertzeko.

Deialdian saioaren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira, lehenengo zein bigarren deialdia izanik ere, bai eta gai-zerrenda ere. Orobat, deialdian aipatu beharko da deialdia zabaltzen den egunetik aurrera ordezkariak eskueran izango dituztela beharrezko espedienteak eta agiriak.

2. Saio batean onartu beharreko aurreko saioen deialdia, gai-zerrenda eta akten zirriborroak Batzar Nagusiko kideei jakinaraziko zaizkie, hain zuzen, euren udalen bidez eta partzuergoko gainerako organoen bidez, eurek euren ordezkariari helarazteko eta

horrela betetakotzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betebeharra.

3. Deialdiaren barruan gai-zerrenda sartuko da, deialdia bidaltzen den egunetik aurrera behar diren espediente eta agiri guztiak ordezkarien esku egongo direla adieraziz.

17. artikulua. Kide anitzeko organoaren funtzionamendua.

1. Batzarraren saioek balioa izateko Batzarra osatzen duten kide ahots eta botodunen erdia baino bat gehiagok izan behar du bertan eta quorum horrek ezin du beherantz egin saio osoan zehar. Nolanahi ere, Batzarreko lehendakariak eta idazkariak edo euren legezko ordezkoez izan behar dute bertan.
2. Oro har, Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartu behar dira. Onartzeko gehiengo soila behar duten Batzarrak hartutako akordioak baliozkoak izateko, Partzuergoaren baitako Erakunde ezberdinetako hiru kideren adostasuna gutxienez egon beharko da, eta ondorio horietarako aintzatespen hori Udal eta Kontzejuetako ordezkariak izango dute.

Estatutu hauek bidea ematen badute, akordioa boto-eskubidea duten Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar du.

18. artikulua. Batzar Nagusiaren eskuduntzak.

1. Gobernu-Batzordeari edo Presidenteari espresuki esleitu gabeko bestelako betebeharrak:
 - a) Estatutuak aldatzea.
 - b) Partzuergoa deuseztatzea.
 - c) Kideak onestea eta egozte.
 - d) Ohiko saioen maiztasuna aldatzea.
 - e) Ordenantzak eta barne araudiak onartzea, bai eta euren aldaketak ere.
 - f) Hornidurari eta saneamenduari lotutako zerbitzuak kudeatzeko modua onartzea. Kudeaketarako sozietate bat eratuko balitz, sozietate horren estatutuak eta aurrekontua onartzea.
 - g) Berezko aurrekontua eta kontuak onartzea.
 - h) Ordainarazpenak eta tarifak ezartzea, dagozkien ordenantza fiskalak eta euren aldaketak onartzea.
 - i) Aurrekontuaren bidez, erakundeko lanpostuetarako langileriak urtero onartzea, funtzionarioei, langileei eta behin-behineko langileei lanpostu guztiak aintzat hartuz
 - j) Tokiko beste erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei kompetentzia-gatazkak planteatzea.
 - k) Partzuergoaren baitako erakundeek edo bestelako tokiko erakundeek nahiz herri-administrazioek egindako kompetentzia-eskuordetzeak onartzea.
 - l) Gobernu-Batzordeari edo Presidenteari espresuki esleitu gabeko bestelako betebeharrak.

2. Boto-eskubidea duten Batzar Nagusiko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa nahitaezkoa izango da a), b), c), g) eta h) ataletan adierazitako gaien inguruko akordioak hartzeko.
3. Batzarrak zuzendaritzako gainerako organoen esku utzi ahal izango ditu quorum berezirik behar ez duten gaietan.

19. artikulua - Gobernu-Batzordea

1. Gobernu-Batzordea sei kidek, kide atxiki batek eta Presidenteak osatuko dute.
2. Presidenteordea Batzar Nagusiko kide gisa hautatu duen Udalerriari dagokion kidegoa betetzeko sartuko da Gobernu-Batzordean.
3. Gobernu-Batzordeko kideak Udalerrietako, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izango dira, honako ordezkariak haur egokituta.
 - Amurrio, botoen % 26 eta ordezkari 1.
 - Artziniega, botoen % 6 eta ordezkari 1.
 - Aiara, botoen % 11 eta ordezkari 1.
 - Laudio, botoen % 46 eta ordezkari 1.
 - Okondo, botoen % 6 eta ordezkari 1.
 - Arabako Foru Aldundia, botoen % 5 eta ordezkari 1.
 - Eusko Jaurlaritza, ordezkari 1, hitzarekin baina botorik gabe.
4. Partzuergoaren baitako Udaletako Gobernu-Batzordeko kide ordezkariak Alkate-Udalburuek edo horiek eskuordeturiko pertsonak izendatu eta baliogabetuko dituzte.

Gainera, ordezkariaren ordezkari bat izendatuko da titularraren kargu-galtze, bertaratze eza eta gaixotasun kasuetarako.
5. Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako kide ordezkariak horiek beren araudiari jarraiki izendatutako entitate bakoitzeko kideak izango dira. Horrez gain, ordezkari bat izendatuko dute aurreko zenbakian azaldutako kasurako.
6. Kideen agintaldiak 4 urte iraungo du eta, hala badagokio, dagokion Udalbatza berritutakoan iraungiko da. Kasu horietan, Partzuergoan dituzten ordezkariak jarraitu egingo dute, bitarteko izaeraz, Partzuergoko Artezkaritza-Organok osatu arte.

20. artikulua. Gobernu-batzordearen bilkurak.

1. Gobernu-Batzordearen bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ezohikoak eta premiazko ezohikoak.
2. Gobernu-Batzordea bi hilabetetik behin bilduko da Presidenteak deitutako ohiko bilkura egiteko.
3. Era berean, egokitutako jotzen diren ezohiko bilkurak burutu ahal izango dira, bai Presidentearen ekimenez, bai Gobernu-Batzordeko legezko kideen laurden batek gutxienez idatziz eskatuta.
4. Bilkuretara Zuzendari Gerentea bertaratuko da, hitzarekin baina botorik gabe.

21. artikulua. Deialdia eta gai-zerrenda

1. Gobernu-Batzordearen bilkura bakoitzerako Deialdia denbora nahikoaz egin beharko da. Bilkuraren deialdiaren eta bilkuraren artean ezin izango dira bi egun baliiodun baino gutxiago igaro, premiazko ezohiko bilkuren kasuan izan ezik, ordezkari bakoitzak hizpide izango diren gaiak aztertu ahal izan ditzan.
2. Deialdia, gai-zerrenda eta bilkuran onartu beharreko aurreko bilkuretako akten zirriborroak Gobernu-Batzordeko kideei jakinarazi beharko zaizkie, dagozkien Udaletako eta Partzuergoaren baitako Erakundeetako gainerako organoen bitartez jasota, horrela jakinarazpenarekin lotutako egiaztapen-baldintza betetzarren.
3. Deialdiak eztabaidatu beharreko gai-zerrenda jaso beharko du, dagozkion txosten eta dokumentuak deialdiaren igorpen datatik aurrera ordezkarien eskura egongo direla adierazita.

22. artikulua. Gobernu-batzordearen funtzionamendua.

1. Gobernu-Batzordearen bilkurak baliozkoak izan daitezen, nahitaezkoa da osatzen duten kideen erdia gehi bat bertaratzea.
Edonola ere, nahitaezkoa da Gobernu-Batzordeko Presidentea eta Idazkaria edo horien legezko ordezkariak bertaratzea.
2. Gobernu-Batzordearen akordioak, arau orokor gisa, bertaratu diren kideen gehiengo soilez hartzen dira.
3. Estatuetan aurreikusten ez den guztirako, Gobernu-Batzordeari Tokiko Erakundeetako kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko zaio.

23. artikulua. Gobernu-batzordearen eskuduntzak.

1. Honakoak dira Gobernu-Batzordearen eskuduntzak:
 - a) Obrak eta zerbitzuak kontratatu eta esleitzeko baldintza-orriak onartzea, eskuduntzetan Presidenteari ezarritako mugen gainetik.
 - b) Obra-proiektuak onartzea.
 - c) Planak, Jarduketa-Programak eta Araudiak onartzea, hornidura eta saneamendu-zerbitzuak emateari dagokionez.
 - d) Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, eta ordainsari osagarrien zenbateko osoa ezartzea indarrean dagoen legerian ezarritako gutxienezko eta gehienezko mugen barruan.
 - e) Aurrekontuen Proiektua onartzea, Batzar Nagusiari behin betiko onar dezan igorri baino lehen.
 - f) Zerbitzuen kostuei buruzko azterketak eta haien etekinaren balorazioa onartzea.
 - g) Aldeak eskatuta, Partzuergoaren baitakoak ez diren Erakundeei zerbitzuak ematea onartzea

24. artikulua. Lehendakaria eta lehendakariordea.

1. Batzarrak zuzeneko bozketa bidez hautatuko ditu bere kideen artean.
2. Hautagaia izateko udalen ordezkaria eta batzordeko kidea izan behar da. Batzordeko ordezkariak txartel bidez hautagai bana bozkatuko dute bere izen-deiturak adieraziz.
3. Hautagai bat lehendakari izendatua izateko, boto gehien lortu beharko du, hots, Batzar Nagusiko legezko kide botodunen gehiengo erabatekoa.

Legez beharrezko den gehiengoa lortu ezean, bozketa berriro egingo da eta boto gehien jasotzen dituen hautagaia lehendakari izendatua izango da. Bigarren bozketa horretan berdinketa gertatuz gero, berdindutako hautagaien artean zaharrena hautatuko da.
4. Bigarren boto-kopuru handiena jasotzen duen hautagaia lehendakariorde izendatua izango da, baldin eta lehendakari berriaren erakunde berekoa ez bada.

Adostuta geratuz gero, hautagai zaharrena izendatuko da adostutako biren artetik.
5. Nolanahi ere, lehendakaria eta lehendakari ordeak izateko, partzuergoaren erakunde desberdinetako ordezkari izan behar da. Biak erakunde berekoak izanez gero, boto gehien jaso-takoetan bigarrena izendatu beharko da.

25. artikulua. Lehendakariaren eskuduntzak.

1. Lehendakariak ondoko eskuduntzak izango ditu:
 - a) Batzar Nagusiaren eta Gobernu-Batzordearen bilkurak deitu, horien buru izan eta bukatzea; eta eztabaidak bideratzea. Berdinketarik gertatuz gero, erabakigarria izango da bere botoa, kalitatekoa izango baita.
 - b) Batzar Nagusiaren eta Gobernu-Batzordearen akordioak betearaztea hartutako erabakiak betearaztea.
 - c) Partzuergoaren ordezkari ofiziala izatea. Hori dela eta, eskriturak, agiriak eta polizak izenpetzeko aginpidea izango du, bai eta, behar izanez gero, Partzuergoa ordezkatzeko eta defendatzeko duten prokuradoreei eta letratuei aginduak emateko ere.
 - d) Partzuergoak egin beharreko lanak eta zerbitzuak zuzendu, bultzatu eta ikuskatzea, horretarako behar diren erabaki guztiak hartuz.
 - e) Gastuak onartu eta agintzea, Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan onarturiko mugen barruan.
 - f) Betebeharrak onartzea eta ordainketak agintzea, Aurrekontuaren likidazioa jakinaraztea eta Erakundearen Kontu Orokorra egitea.
 - g) Partzuergoko langile guztien nagusi-lanak egitea. Halaber, lan-kontratuko eta behin-behineko langileak hautatu beharko ditu.
 - h) Bere ardurapean eta Batzarrak edo Gobernu-Batzordeak emandako irizpideei jarraiki, presazko neurriak hartzea, Partzuergoaren gaiek hala eskatzen dutelako, eta egiten den lehenengo saioan horren berri Batzar Nagusiari edo Gobernu-Batzordeari ematea.
 - i) Administrazio-egintzak eta egintza judizialak erabiltzea, premiazko izanez gero,

eta egiten den lehenengo saioan horren berri Batzar Nagusiari edo Gobernu-Batzordeari ematea.

- j) Zerbitzuen kostuari buruzko ikerketak eta horien errendimenduari buruzko balioespena egitea, Gobernu-batzordeak onar ditzan.
 - k) Aurrekontuen proiektua egitea eta Gobernu-Batzordera eramatea hark onar dezan, Batzar Nagusiak behin-betiko onarpena eman aurretik.
2. Lehendakariak zuzendari kudeatzailearen esku utzi ahal izango ditu bere eskuduntzak, a), g), h), e) eta i) ataletan adierazitakoak izan ezik.

26. artikulua. Lehendakariordearen eskuduntzak.

Lehendakariordeak Lehendakaria ordeztu beharko du, baldin eta hura bertan ez badago, gaixorik badago edo bertaratu ezinik badago. Orobat, Lehendakariaren funtzioa bete beharko du, Lehendakariaren postua hutsik egonez gero.

27. artikulua. Zuzendari kudeatzailea.

- 1. Partzuergoaren Batzarrak izendatu eta egotziko du Zuzendari kudeatzailea, bai eta haren lan-erregimena eta lan-baldintzak ezarri eta zein funtzio bete beharko dituen zehaztu ere.
- 2. Gainera, Zuzendari Kudeatzaileak zuzendaritzako beste organoek bere esku uzten dituzten funtzioak beteko ditu.

III. KAPITULUA ERREGIMEN EKONOMIKOA

28. artikulua. Partzuergoaren ondasunak

- 1. Partzuergoak ondoko ondasun hauek izango ditu:
 - a) Mota orotako diru-sarrerak, uraren ziklo integralaren zerbitzuen ustiapenetik eratorriak.
 - b) Eusko Jaurlaritzaren, Estatuko Gobernuaren eta Europar Batzordearen ekarpenen ondorioz sortutako diru-sarrerak.
 - c) Beste erakunde publiko eta pribatu batzuetatik jasotako diru-laguntzak edo dohaintzak.
 - d) Kreditu-eragiketen ondorioz jasotakoak.
 - e) Bere ondaretik jasotako diru-sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako baliabide ekonomikoak.

Zuzenbidearekin bat etorrita eman dakizkion gainerako baliabide ekonomiko guztiak.

- 2. Zerbitzua jasotzen duten udalei eta Kontzejuei eskatu ahal izango zaizkie derrigorrezko ekarpenak, 1. atalean adierazitako diru-sarrerak behar adinakoak ez badira, Batzar Nagusiak estatutu hauen 18.2. azpiartikuluaren adierazitako quorumarekin hitzarmena sinatuz. Kasu honetan, zerbitzuaren hartzaileak diren Erakundeek ekarpenak udal

horiek egiaztatu behar den urtearen aurreko urteko erroldan duten biztanle kopurua kontuan hartuz kalkulatu dira.

29. artikulua. Tarifak.

Hornidura- eta saneamendu-zerbitzuen indarreango tarifen barruan lehenengo establezimenduko finantza-gastuak egongo dira sartuta, bai eta ustiapen-, kontserbazio- eta mantenimendu-gastuak, zuzenekoak zein zeharkakoak, eta etorkizuneko handiketarako erreserba sortzeko balizko kuotak ere. Orobat, mul tzo horretan norbere kredituen eta partzuergoko erakundeek egindako ekarpenen ondorioz sortutako finantza-gastuak ere sartu beharko dira.

30. artikulua- Tarifak ezartzeko irizpideak.

Partzuergoak erabili beharreko tarifak ezartzeko, ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

- a) Nahikotasuna: zerbitzuari finantza-autonomia eman nahian ezarriko da tarifen zenbatekoa.
- b) Progresibotasuna: zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta gehiago ordaindu.
- c) Berdintasuna: zerbitzu berbera jasotzen duten partzuergoko toki-erakundeetako bizilagunentzako tarifa berbera. Horiek Partzuergoaren baitako Erakunde guztiei aplikatuko zaizkie.
- d) Batasuna: kontsumitutako unitate bakoitzeko prezio bakar bat ezarriko da.

31. artikulua. Tarifak ezartzea.

Partzuergoaren asmoetariko bat da berak emandako zerbitzuen kostuak tarifen bidez ordaintzea. Ildo horretatik, tarifak era mailakatuan ezarri edo handitu ahal izango dira, partzuergoak hala nahi duen egunetik aurrera. Partzuergoak ezarri beharko ditu lehen sareko tarifak, salbu eta haren izaeratik ezin bazaio aginpide hori atxiki. Kasu horretan, partzuergoaren erakundeek onartu beharko dituzte Partzuergoak proposatutako tarifak.

32. artikulua. Administrazio-kudeaketarako unitatea.

Erabiltzailearen administrazio-kudeaketarako unitatea jarduera-irizpidea da. Ordainagiri bakarra ezarriko da, halako moldez non banatu ordainagiriaren azalpenak ahal izango diren, horietako bakoitzari ematen zaizkion zerbitzuen arabera.

Erabiltzailearen hornidurako tarifek, Partzuergoak aplikatu behar dituenek, lehen sarekoen prezioa izango dute barne. Prezio horri banaketa-gastuak eta tarifak osatzen dituzten gainerako gastuak erantsiko zaizkio, bai eta martxan ez dagoen sarearen galerak ere.

Tarifa hauek Partzuergoaren baitako Erakundeek kobratuko dituzte eta horiek Partzuergoari lehen sareko zerbitzuei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko diote, Batzarrak ezarritako epeetan. Harpidedunen kudeaketa Partzuergoak hartu ahal izango du bere gain Erakunde interesdunek hala eskatzen dutenean eta Batzar Nagusiak horren komenigarritasuna ikusten duenean.

Partzuergoaren eskariz, Arabako Foru Aldundiak kendu ahal izango du euren kontura dituzten tarifak ordaintzeko behar den diru kopurua hitzartutako zergetan parte hartzeagatik toki-erakundeek dituzten ekarpenetatik eta estatutu hauetako 28.2. artikulua araberaz jasotzen dituen derrigorrezko ekarpenetatik.

33. artikulua. Onurak.

Partzuergoa osatzen duten erakundeen artean ez da inola ere onurarik banatuko. Onurak tarifen zenbatekoa jaisteko edo asko ez igotzeko aplikatuko dira, edo handiketa berrietarako erreserba-fondoak eratzeko.

IV. KAPITULUA ONDAREA

34. artikulua. Partzuergoaren ondarea.

1. Partzuergoa osatzen duten erakundeek bere helburuak betetzeko eta Partzuergoak berak bere fondoen kontura hartzen dituen helburuak betetzeko Partzuergoari ematen dizkieten ondasunak izango dira Partzuergoaren ondarea.
2. Inbentario zehaztua egin eta gero, Arabako Foru Aldundiak Partzuergoari ondokoan aginpidea emango dio: uresleipenak, eraikitako edo eraiki bidean dauden urtegiak, egindako edo egin bidean den hoditeria, ura arazteko estazioak, kolektoreak eta gainerako instalazioak, bitarteko materialak eta lehen sareari zatika edo osorik lotutako proiektuak.
3. Orobat, inbentario zehaztua egin eta gero, Partzuergoa osatzen duten toki-erakundeek Partzuergoari ondokoan aginpidea emango diote: uren lehen sareari zatika edo osorik lotutako instalazio, bitarteko material eta proiektu guztiak, hala nola, iturburuak, urtegiak, putzuak, esleipenak, deposituak, araztegiak, hoditeriaren sareak, jasotze-ekipoak, linea elektrikoa eta lehen sareko gainerako elementuak.
4. Partzuergoak bere gain hartuko ditu eratze-unean hitzartutako kreditu-eragiketak itzultzeko urteko ordainketak, bai eta bere indarraldian izenpetzen diren kreditu-eragiketak ere, lehen sareko oinigitura-lanak, deposituen, urtegien eraikuntza eta beste finantzatzea helburu dutenak.

V. KAPITULUA LANGILEAK

35. artikulua. Langileak.

Partzuergoak nahi adina lanpostu sortu ahal izango ditu bere helburuak lortzeko; langile horiek funtzionarioak edo lan-itunpeko langileak izango dira.

36. artikulua. Partzuergoari transferitu dakizkiokeen Partzuergoaren baitako Erakundeetako langileei buruz.

1. Partzuergoak garatu beharreko jarduerak burutzeko behar dituen langileen profilak ezarriko ditu.
2. Partzuergoaren baitako eta hornidura eta saneamendu-zerbitzuetara atxikitako langileak, funtzionarioak edo laboralak, ezin izango zaizkio Partzuergoari transmititu.
3. Partzuergoa desegingo balitz, beharrezkoa balitz, dagoeneko transferituriko langileak Partzuergoaren baitako jatorrizko tokiko Erakundeko langileen artera itzuliko lirateke.

37. artikulua. Idazkaria.

1. Partzuergoko Idazkariak ondoko eginkizunak izango ditu:
 - a) Batzar Nagusiko idazkaria izatea, ahotsa bai baina botorik ez duelarik.
 - b) Batzar Nagusiaren egintza eta hitzarmen guztien fede emaille izatea.
 - c) Batzar Nagusiari eta bere Lehendakariari legez beharrezkoa den aholkularitza ematea.
 - d) Partzuergoari bidalitako gutun eta agiri guztiak jasotzea eta artxibatzea, behin Lehendakariak horren berri izan eta erabakia hartuz gero.
 - e) Toki-erregimeneko legerian Toki-Administrazioko idazkari postuarentzat ezarritako gainerako eginkizunak.
2. Plaza sortzen ez den bitartean edo plaza hori legezko araudi aplikagarri betez esleitzen ez den bitartean, postua Batzarrak hautatutako pertsona batek bete ahal izango du.

38. artikulua. Kontuhartzailea.

1. Partzuergoko kontuhartzaileak kudeaketa ekonomikoaren aholkularitza eta fiskalizazio-lanak egingo ditu, hauexek dituelarik eginkizun nagusiak:
 - a) Lehendakariari aholkularitza ematea, edo Zuzendari Kudeatzailearen esku utziz gero, ohiko eta ohiz kanpoko aurrekontuen aurreproiektua egiteko.
 - b) Partzuergoaren kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea eta bere kontularitza eramatea.
 - c) Oro har, indarreango legerian eskuhartzaileentzat ezarrita dauden eginkizunak.
2. Inor kargurako izendatzeari dagokionez, aurreko artikuluan Idazkariarentzat ezarritakoa beteko da.
3. Idazkariaren eta eskuhartzailearen eginkizunak pertsona bakar batek hartu ahal izango ditu.

VI. KAPITULUA

KIDEAK ONARTZEA ETA EGOZTEA

39. artikulua. Kide berriak sartzea.

1. Partzuergoa sortu ondoren bertan sartu nahi duten Udal eta Kontzeju guztiek Partzuergoko Lehendakariari bidali beharko diote idatzizko eskaera. Horrekin batera, udalbatzarrak edo kontzejuaren administrazio-batzarrak horren inguruan hartutako hitzarmenaren egiaztatzea bidali beharko da, legeak eskatutako formalitate guztiak beteta.
2. Onarpen-eskariak 15 eguneko epean jarriko dira jen- daurrean.
3. Beharrezko erabakia Batzar Nagusiak gehiengo kualifikatuaz hartuko du, eta, estatutu hauen 18.2. azpiartikulan ezarritakoaren arabera, interesa duen erakundeari ofizialki eman beharko dio horren berri.
4. Aiarako Koadrilako Administrazio-Batzarrak sartuz gero, Batzar Nagusian izango duten ordezkariak Estatutu hauetako 13. eta 19. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera izango da.
5. Partzuergoaren Batzar Nagusiak onartzen duen kide berriaren ekarpen ekonomikoak Batzar Nagusiak ezarriko ditu. Orobat, Partzuergoaren zerbitzuen mantenimendugastu gisa ezarritako ohiko ekarpena edo ekarpen arrunta ere ezarriko du.

40. artikulua. Kideak egozteak.

1. Behin behar besteko quoruma duen udalbatzar edo erakunde aginpidedunak erabakia hartuz gero, Partzuergoaren erakunderen bat Partzuergotik egozteko eskariak bere eremuko zerbitzuak bermaturik utziko ditu eta bere egozte horrek ez die kalterik eragingo Partzuergoaren interes orokorrei.
2. Eskaria 15 eguneko epean jarriko da jendaurrean.
3. Beharrezko erabakia Batzar Nagusiak hartuko du, estatutu hauen 18.2. azpiartikulua betez, eta bertan zehaztuko da, egoki izanez gero, egozte horrek ondasunen, eskubideen eta betebeharren arloan zein eragin izango dituen.
4. Egozte hori Partzuergoko beste kide batzuek bultzatuta bada, Batzar Nagusiak hartu beharko du erabakia.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Partzuergora 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen besterendutako erakundeetako langileen kasuan, baldintza hauek aplikatuko dira:

1. Partzuergoa arduratuko da aipatutako egunaren aurretik besterendutako partzuergoko erakundeetako hornidura eta saneamenduko zerbitzuetako langileei soldata kontzeptuan dagozkien betebeharrak ekonomikoak ordaintzeaz. Betebeharrak horiek finkatzerakoan, langileei beren jatorrizko tokiko erakundeetan aplikagarri zaien laneko akordio eta hitzarmenak hartuko dira kontuan; horrela, kategoria, soldata nahiz antzintasuna (hirurteko kopurua, haien zenbatekoa eta antzintasunari dagokion

langileen osagarri iragankorra) mantendu egingo dira.

2. Langileei erretiro aurreratua eta bestelako egoera ezohikoak direla medio haiei dagokien kalte-ordain, hobari edota antzeko beste ordainen kasuan horrela jardungo da:
 - Erretiro aurreratuaren ondoriozko kalte-ordainen kasuan, aplikagarri diren laneko akordio eta hitzarmenen arabera sortzen den kostua eragindako erakundeen (jatorrizko partzuergokoaren baitako erakundea eta ur partzuergoa) artean banatuko da. Banaketa hori langileak erakunde horietako bakoitzean eman duen denboraren proportzioan egingo da.
 - Estatutu hauetan jasotzen ez diren kasuak eskumeneko organoak aztertuko ditu eta hark erabakiko du zein erakundek baitaratuko dituen sor daitezkeen betebeharrak (ekonomikoak edo bestelakoak).
3. Partzuergoa desagertuko balitz, beharrezkoa izatekotan, besterendutako langileak jatorrizko partzuergoaren baitako jatorrizko erakundearen langileriaren parte izatera itzuliko dira.

VII KAPITULUA ESTATUTUAK ALDATZEA ETA PARTZUERGOA DEUSEZTEA

41. artikulua. Estatutuak aldatzea.

1. Erakunde interesdun guztiek eta Batzar Nagusiak egin ahal izango dute estatutuak aldatzeko proposamena.
2. Estatutuak aldatzeko proposamen horretan horren arrazoiak jaso behar dira, bai eta aldatu behar diren aginduen testua eta indargabetzen diren aginduen zerrenda ere.
3. Estatutuak aldatzeko, Batzar Nagusiko legezko kide botodunen bi herenen aldeko botoa beharko da. Horretarako bera-riaz deitutako aparteko bilkuran hartuko da erabaki hori.
4. Partzuergoko toki-erakundeek aldaketa onartuko dute horretarako berariaz deitutako aparteko bilkuran. Horretarako, Batzar Nagusiko legezko kide botodunen erabateko gehiengoaren aldeko botoa beharko da, Toki Jaurbidearen Oinarriak arau tzen dituen Legearen 47.3.b) azpiartikuluarekin bat etorriz.
5. Batzar Nagusiak zein Partzuergoko erakundeek hartutako erabakietan artikulua honen 2. lerroaldean adierazitako puntuak jasoko dira.

42. artikulua. Deuseztapena.

1. Ondoko arrazoi hauek direla medio deuseztuko da Partzuergoa:
 - a) Lege-xedapena.
 - b) Partzuergoko erakunde guztiek komenigarri ikusten dutenean, behin Batzar Nagusiak erabaki hori hartuz gero.
 - c) Partzuergoko erakunde-kopurua aldatzen denean, horren ondorioz

Partzuergoan geratzen diren kide guztiak izaera edo jite berekoak badira.

- d) Partzuergoaren iraupena interes publikoaren kontrakoa dela agerian uzten duten gorabeherak gertatzen badira.
2. Aipatutako arrazoiren batean oinarritutako deuseztapen- proposamena gutxienez Batzar Nagusiko kideen heren batek aurkeztu behar dio Batzar Nagusiari, arlo juridiko, ekonomiko eta teknikoen oroitidazki justifikagarri batez hornituta.
3. Batzar Nagusiak horretarako deitutako ohiz besteko bilkuran aztertuko du deuseztapen-proposamena eta estatutu hauen 18.2. azpiartikuluari aipatutako gehiengo kualifikatuaz erabakia hartuz ebatziko du.

43. artikulua. Likidazioa.

Deuseztapena gertatuz gero, Partzuergoko erakundeek emandako ondasunak, instalazioak eta eskubideak Partzuergoaren helburuetatik jareginda geratuko dira eta lehengo jabeen eskuetara itzuliko dira, horrelakorik ez gertatzeko arrazoi berezirik ez bada. Partzuergoaren gainerako ondasunei dagokienez, Batzar Nagusiak bere deuseztapen-erabakian ezarritakoa beteko da.